

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

1 AURREKARIAK. BEHARRAK. PROIEKTUAREN EDUKIAK

“Lezo, Eko-Parke Industriala” proiektuak Lezoko udalerrian eta OARSOALDEA, S.A.n, eskualdearen garapen agentzia den neurrian, ingurumenaren aldagaia oso-osorik erantsi nahi die udalerraren eta eskualdearen industria-zaletasunari, baita kultur ondareari ere.

Proiektuaren helburua udalerriko 103., 108. eta 110. industri poligonoetan naturan oinarritutako konponbideak eta azpiegiturak sartzeari begira jarduerak identifikatu eta planifikatzea da. Ildo horri jarraiki, industria-ingurune horiek urbanizatu, modernizatu eta ekipatzeko prozesua ingurumenaren eta naturarekin bateratzearen ikuspegitik sendotu nahi da. Ekimena jardun berriztatzailea da eta Lezoko, Oarsoaldeko eskualdeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste industri poligono batzuetara zabaltzeko asmoz eratua dagoela frogatzen da.

Proiektu honetatik sortutako jarduerak industria-zaletasunaren eta natura nahiz ingurumenarekiko errespetu egokiaren arteko bateragarritasuna lehengoratu behar dute. Aldi berean, proiektuak industri poligono finkatuak eguneratzeko prozesuetan naturan oinarritutako konponbideak eta ekosistemaren barruko zerbitzuak sustatu nahi ditu. Halaber, Oarsoaldean poligono edo *industrialde* berriak egituratzen direnean, naturalizatzeko irizpide eta eskakizun berriak sartu nahi dira eta EAEko gainerako udalerrietara zabaltzeko aukera izango da.

Lezoko udalerriko 103., 108. eta 110. industri poligonoetako naturalizazio eta trantsizio berdearen planak, nagusiki, natur konponbideak integratu nahi ditu, baina baita beste batzuk ere, energia sortzearekin zerikusia badute. Horiek guztiak industria-poligonoak birgaitzean eta iraunkortasunerantz trantsizioan bultzatzean elementu berriztatzaileak izango dira.

Proiektuaren azken dokumentuak naturalizazio eta trantsizio berdearekin zerikusia duten aukeren katalogoa izango du aztertutako poligono bakoitzerako. Proposamenei egokitasun- eta eragin-mailaren arabera lehentasunak emango zaizkie. Proposamenak, gutxienez, honako natur konponbide eta azpiegitura berdeen tipologiatan sartuko dira:

- Estalki loratuak
- Baratzeak teilatu lauetan
- Fatxada berdeak
- Berdeguneak hobetzea
- Bideak zuhaitzez hornitzea
- Euri-urak hartzea
- Uraren mikroklimak eratzea
- Drainatze-sistema iraunkorra
- Panel fotovoltaikoak
- Altzari berdeak
- Area degradatuak landareztatzea
- Zoladura iragazkorra

Lezoko udalerriko 103., 108. eta 110. industri poligonoetan naturalizazio eta trantsizio berdearen planari dagozkion azken materialek gutxienez hurrengo elementuak izango dituzte:

1. Naturalizazio eta trantsizio berderako proposamenen katalogoa
2. Ekintza-plan zehatza, jardueren deskribapena, kostua eta nahasitako eragileak barne.
3. Kudeaketa-eredua, zuzendaritza- eta koordinazio-organoak identifikatuta, eta jarraipenari buruzko aginte-taularekin.
4. Finantzaketa-eredua, eskualdez gaindiko finantzaketa-iturri potentzialen zerrenda barne.

2 PROIEKTUAREN ERAKUNDE SUSTATZAILEAK ETA ERANTZUKIZUNAK BANATzea

Proiektuaren erakunde sustatzaileak ondorengoak dira: OARSOALDEA, S.A. eskualdearen garapen agentzia (baita AGENTZIA ere), LEZOKO UDALA eta BIDASOA OARSOKO INDUSTRIALDEA S.A.

Proiektua inplementatu eta egiteko orduan erantzukizuna AGENTZIAK bere gain hartuko du, proiektua garatzeko laguntza tekniko adituaren kontratazioa lizitazioan jartzen duen adjudikazio-boterea baita.

AGENTZIA zuzenean nahasteak udalerriko eta eskualdeko industria-guneei eta ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-errealitateari buruz ikuspegi osoa bermatzen du, eskualdean lurraldearen sustapen-ekimenak garatzean kudeatzeko beharrezkoa den gaitasuna eskuratzeaz gain.

Lezoko Udalak ekimena babesten du eta proiektuarekin konpromisoa hartuko du. Ingurumen eta antolamenduaren arloko teknikariek ekimenean lankidetzan jardun dute eta egiteko informazioa nahiz irizpideak eman dituzte.

AGENTZIA berriaz izendatu da proposamenaren buru izateko, baina LEZOKO UDALEKO teknikariek koordinatuko da.

BIDASOA OARSOKO INDUSTRIALDEA S.A. sozietatean kide dira SPRI eta inguruneke udalak eta industria-gune publikoak (Industrialdeak) kudeatu, sustatu eta merkaturatzeaz arduratzen da. Bere partaidetzari esker, industri poligonoen informazio zehatza dago eta egikaritze materialari eta SPRILURREN bidetik Lezoko esperientzia eskualdeko eta EAEko beste industri poligono batzuetara zabaltzeari atea irekitzen dizkio.

Proiektua gauzatzeko KOORDINAZIORAKO BATZORDE TEKNIKOA eratuko da Udalsarea 21ekin batera, proiektua garatzen nahasiak dauden hiru erakundearen artean. Hurrengo konposizioa izango du:

- AGENTZIA ordezkatuz, Xabier Sánchez Arruabarrena, Hiri Berrikuntza, eta Joseba Finó, Industria Sustapena. AGENTZIA arduratuko da laguntza teknikoa kontratatzeaz eta proiektua teknikoki gauzatzaz.
- Lezoko Udala ordezkatuz, Adur Ezenarro, udal-arkitektoa, Imanol Etxeberria, udal-arkitekto teknikoa, eta Leire Beteta, ingurumen-teknikaria. Udalbatza araudian sartzeaz arduratuko da eta udalerriko hiri antolamenduarekin bat etortzea lortuko du.

- BIDASOA OARSOKO INDUSTRIALDEA, S.A. ORDEZKATUZ, Idoia Bastida, kudeatzailea. Konpainia honek poligonoetako informazio zehatza entregatuko du eta Lezoko nahiz BIDASOA-OARSO eskualdeko Industrialdeak modernizatu eta ekipatzeko estrategiarekin bat egokituko du.
- Udalsarea 21ek proiektuaren emaitzak moldatuko ditu, gero beste ingurune batzuetara transferitzeko prozesua berma dadin. Horrez gain, emaitzak gizarteratzez arduratuko da.

Koordinaziorako Batzorde Teknikoko kideak diziplina anitzeko talde modura egituratuko dira eta beren erakundeetan erantzukizun estrategikoak, baita arloan gaitasun teknikoa ere izango dituzte. Xedea aurrez ikusitako jarduerak eraginkortasunez eta egokiro gauzatzen direla bermatzea da.

Proiektua garatzeko plegu hauetako kontratazioa euskarri da, estrategiaren eta metodologiaren mailan laguntza tekniko aditua eskainiko baitu. Lizitazioaren enpresa adjudikaziodunak ekimena garatzean zuzenean nahasiak dauden hiru erakundeetako taldearen profil teknikoa osatuko du.

3 FASEAK ETA ZEREGINAK

1. FASEA. POLIGONOAK ETA NATUR INGURUNEA KARAKTERIZATZEA

HELBURUA

Fase honetan diagnostiko osoa eta zehatza lortu nahi da Lezoko udalerriko 103., 108. eta 110. industri poligonoen egoerari buruz honako ikuspegiak erreferentziatzat hartuta: konfigurazio fisikoa, naturalizazio-egoera eta energia-eredua. Egitura-txostenak poligono bakoitzean pabiloi, nabe, azpiegitura eta horniduren zerrenda izango du, egoera kategorien arabera sailkatuko du eta naturalizatzeko eta trantsizio energetikorako balizko esku-hartzeen aurrean heldze-egoera balioetsiko du.

METODOLOGIA

1. ZEREGINA. Poligonoak karakterizatzea.

Poligono bakoitzeko (103, 108 eta 110) karakterizazio- eta balioztapen-txosten bana hurrengo informazioarekin:

- Dauden nabeak, pabiloiak eta eraikuntzak.
- Dauden azpiegitura berdeak.
- Energia-azpiegiturak.
- Enpresen tipologia.
- Bestelako azpiegiturak eta ekipamenduak.
- Saneamenduko azpiegiturak.
- Irigarritasuna eta mugikortasuna.

1. zeregina 2019/05/31ra iritsi baino lehen amaituko da.

2. ZEREGINA. Natur ingurunearen diagnostikoa.

Inguruneko bioaniztasunaren egoeraren eta inguruko landa-eremuan dauden jardueren analisia, egoerari hobe moldatuko zaizkion natur konponbideak, ekosistemaren zerbitzu gehiago eskainiko dituztenak, ezagutzeko. Jaizkibelgo eta Aiako Harriko Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) eta Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) agiriak kontsultatuko dira. Halaber, bi natur espazio horiek elkartzen dituen igarobide ekologikoari (RedVert) buruzko azterketa aztertuko da. Era berean, honako txostenei erreparatuko zaie: landaretza potentziala eta ibaiertzekoa, baita GeoEuskadi bisorea ere. Helburua kartografi irudikapenerako mapak eta laguntza-mapak egitea da, tokiko eremuan bioaniztasunaren kudeaketa eta kontserbazioari buruzko Udalsarea21 agiriarekin bat.

2. zeregina 2019/05/31rako amaituta egongo da.

2. FASEA. NATURALIZATZEKO ETA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ZAHARBERRITZEKO AUKERAK.

HELBURUA

Aztertutako poligono bakoitzerako naturalizazio eta trantsizio berdearekin zerikusia duten aukeren katalogoa konfiguratzea. Katalogoak egin daitezkeen jarduera-proposamenen sorta izango du. Proposamen bakoitza helburuak kontuan hartuta egokitasun- eta eragin-mailaren arabera balioetsiko da eta poligonoetako erabiltzaileen (enpresak, langileak, enpresa erabiltzaileak, etab.) nahiz inguruko landa-eremuko jardueren (baserriak, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak, langileak, enpresa erabiltzaileak, etab.) pertzepzioa jasoko du.

METODOLOGIA

3. ZEREGINA. Aukerak identifikatu eta aztertzea.

Fase honetan **natur aukerak (Ihobe Udalsarea 21 gida) identifikatu eta sakonki aztertuko dira.** Azpiegitura berdeak (Europarako azpiegitura berdea eraikitzea) eta urbanizazio iraunkorra (urbanizazio proiektuen garapen iraunkorrerako gida) kontuan hartuko dira. Ildo horri eutsiz, aztergai ditugun industri espazioetan helburua energia berriztagarrietan, ingurumenarekiko errespetuan eta iraunkortasunean oinarrituta zaharberritzea da, beraz, beren ezaugarriengatik ahalmen handiena duten jarduerak hautatu ahal izango dira.

Jarduera bakoitzari dagokionez, analisi kualitatibo eta kuantitatiboa egingo da, kategoriatan eman edo lehentasuna ezartzeko honakoak kontuan hartuta: ingurunearekin koherentzia, eskaintzen duen bioaniztasuna, energi kostuak murriztea, energia sortzea, mantentze-lanen kostuak, arintze erlatiborako gaitasuna, aldaketa klimatikoarekiko moldapena eta eskaintzen dituen ekosistemen zerbitzuak. Analisi honi esker, ekintza bakoitzaren ahalmena neurtuko da, ekintzarik eraginkorrenak zehazteko.

3. zeregina 2019/05/31rako amaituta egongo da.

4. ZEREGINA. Talde interesgarrien pertzepzioa eta inplikazioa.

Naturalizazio eta trantsizio berdearen aukerak identifikatu eta lehentasuna ematearekin batera, poligonoetako erabiltzaileen pertzepzioari buruzko analisia erantsi beharko da.

Nolanahi ere, aipatu pertzepzioaren analisiak bi une izango ditu. Lehenengo fasean, poligonoetan naturalizazio eta trantsizio berdearen arloan jarduerak egitearen aurrean erabiltzaileen harrera ikertuko da. Horien garrantzi-maila, bestelako jardueren aurrean lehentasun-maila edo plana garatzean balizko konpromiso eta nahaste-mailari buruz galdetuko zaie.

Xede horrez, partaidetza-prozesuan esku hartuko duten gizarte-eragileak hautatu eta identifikatuko dira. Besteak beste, poligonoetako enpresetako ordezkariak eta inguruneko landa-eremuko ordezkariak, baita enpresa erabiltzaileenak ere egongo dira. Halaber, partaidetza-prozesuan langileak eta banako pertsonak izango dira, poligonoekin eta landa-eremuarekin zerikusia badute. Guztiekin telematikoki jarriko da harremanetan eta online galdeketa betetzeko gonbita luzatuko zaie. Nolanahi ere, galdeketak (online galdeketa edo antzekoa) ekimenaren egiazko pertzepzioa ezagutzeko funtzionaltasun eta eraginkortasun egiaztatua izan beharko du.

Galdeketak bi elementu-mota konbinatuko ditu. Batetik, halako ekimenaren aurrean eskea eta harrera orokorra jakiteari begira galdera orokorrak egingo dira. Bestetik, dagokion zereginen garapenak aprobeztatuko dira aukera aipagarrienei buruz norberaren interesa alderatzeko.

Hartzaileak interes-taldean arabera sailkatuko dira eta erakunde-partaideek dituzten datu-baseez baliatuko da. Dena den, une oro datuak babesteari dagokionez indarreko legedia betetzen dela bermatuko da.

Lortutako emaitzen ondorioz, pertzepzioari buruzko txostena idatziko da. Hala, zehatzago ezagutuko dira poligonoetako errealitatea, zailtasunak eta eskeak eta, bide batez, jardueren katalogoa, baita ekintza-planaren ikuspegi estrategikoa ere xehatu eta lehentasunak ezartzeko erabiliko da.

Bigarren unean, ekintza-plana burutu ostean, berriz alderatuko da eragileekin proiektuaren emaitza gizarteratzeko eta etorkizunean, inplementatzen denean, harrera- nahiz konpromiso-maila hautemateko.

4. zeregina 2019/07/31rako amaituta egongo da.

3. FASEA. EKINTZA-PLANA

HELBURUA

Aztertutako poligono bakoitzerako jardueren katalogo osoa duen ekintza-plana garatuko da. Aurrekoaren harira, aipatu ekintza-plana hiru eta hamar urterako bi inplementazio fasetan egituratuko da. Horretarako, poligono bakoitzean eta bere eraginpean *ad hoc* diseinatuko den inplementazio-egutegiari erreparatuko zaio.

METODOLOGIA

5. ZEREGINA. Jarduera-fitxak.

Jarduerak deskribapen-fitxatan jasoko dira. Fitxa bakoitzak jardueraren irismena, planoan kokapen zehatza, dimentsioa, izaera eta ikuspen finantzarioa nahiz mantentze-lanak adieraziko ditu. Planak kronograma eta kudeaketa- nahiz jarraipen-eredua antolatuko ditu beste ezaugarrien artean. Horrez gain, ekintzekin lortuko de eragina neurtu ahal izango da.

5. zeregina 2019/07/31rako amaituta egongo da.

6. ZEREGINA. Ekintza-plana diseinatzea eta faseak zehaztea.

Aldi honetan jarduerak bi inplementazio-fase handitan planifikatuko dira, jarduera bakoitzak duen eragin eta egingarritasunaren arabera.

- I. fasea. Inplementatzeke errazenak diren jarduerak, egikaritze-ahalegin txikiena eskatzen dutenak, jasoko ditu. Irizpide objektiboekin bat eragin handiena dutenei lehentasuna emango zaie.
- II. fasea. Jarduera konplexuenak edo ahalegin ekonomiko handiena ala erakundeen eta sailen arteko lankidetzak eskatzen dutenak jasoko dira.

6. zeregina 2019/10/31rako amaituta egongo da.

4. KUDEAKETA- ETA EGIKARITZE-EREDUA

A. KUDEAKETA

Metodologian aurrez ikusten diren faseak eta zereginak behar bezala garatzeko, Koordinaziorako Batzorde Teknikoa eratzea planteatzen da, plegu honen lehenengo atalean xedatutakoari jarraiki.

Koordinazio Batzordearen erantzukizunpekoak izango dira proiektua estrategikoki bideratzea, abian jartzeko dokumentazioa biltzea eta Udalsarea 21ekin solaskidea izatea. Izan ere, azkenekoa batzordean egongo da, egokitze jotzen badu.

B. EGITEN ARI DEN BITARTEAN PROZESUA JARRAITZEA

- Barne bilerak

Koordinaziorako Batzorde Teknikoak hilero aldizkako bilerak egingo ditu, proiektua hasten denetik amaitu arte. Laguntza teknikorako enpresa kontratatzen denean, enpresak bileratan parte hartuko du.

- Udalsarea 21ekin jarraipen-bilerak edota -txostenak

Udalsarea 21eko taldekideek egokitzen jotzen duten aldizkakotasunarekin, Koordinaziorako Batzorde Teknikoak jarraipen-bilerak eta emaitzak aurkezteari dagozkionak programatuko ditu.

C. FINANTZAKETA-EREDUA ETA INBERTSIOETARAKO FINANTZAKETA-ITURRIAK IDENTIFIKATzea

Lezoko 103., 108. eta 110. poligonoetarako naturalizazio eta trantsizio berdearen planak finantzaketa-eredua izango du atxikia, planari bideragarritasun ekonomikoa eskaintzeko. Hala, tokiko edo EAEko erakunde publikoen aldetik izan daitezkeen aurrekontu-konpromisoak identifikatuko ditu. Gainera, proiektua hirigintza zaharberritzeari, natur espazioak berrantolatzeari eta energia trantsizioari buruzko proiektuen esparruan europar finantzaketa-deialdietan aurkezteko aukera balioetsiko da.

D. GIZARTERATZE-EREDUA ETA POLIGONOETAKO NAHIZ INGURUNeko ERABILTZAILeen ERANTZUKIZUN PARTEKATUA

Proiektuak industria-poligonoetako enpresek, inguruko landa-eremuko jarduerak eta, orokorrean, herritarrek nahastea eskatzen du. Horregatik, ezinbestekoa da hasieran industria-eremuetako enpresek eta langileek duten pertzepzioa ezagutu eta ulertzea.

Illo horri eutsiz, poligonoetako enpresen eta erabiltzaileen lantalde edo elkarte motaren bat sortzeko aukera sustatzea ez da baztertzeko, plana abian jartzeko orduan modu erabakigarrian lagundu nahi badute.

Halaber, proiektua Lezoko udalerriko herritarrei aurkeztuko zaie udalaren web orri ofizialaren bitartez eta ekimena gizarteratzeko proposamen desberdinak planteatuz joango dira, erreferentziarako udal-proiektu liluragarri eta berriztatzailearen inguruan herritarrengan interesa pizteko.

Koordinaziorako Batzorde Teknikoak esperientzia beste ingurune batzuetan, eskualdearen barruan edo kanpoan, hedatzen dela zainduko du. Xede horrez, bilerak eta mintegiak antolatuko ditu.

5. PROIEKTUTIK ESPEROTAKO ERAGINA

A. PLANA INPLEMENTATZEARI LOTUTA, INGURUMEN-ERAGIN POSITIBOAK ZENBATESTEa

Edozelan ere, Lezoko udalerriko 103., 108. eta 110. industria-poligonoetan naturalizazio eta trantsizio berdearen plana gauzatzean nabarmenki murriztuko dira egungo ingurumen-eraginak.

B. PROIEKTUARI ATXIKITAKO BESTE ONURA BATZUK DESKRIBATZEA

Proiektuari atxikitako helburu bat industria-sarea natur ingurunean integratzea da, Natura 2000 Sarearen barruan dauden Jaizkibel eta Aiako Harriak tokien artean igarobide ekologikoa sustatzeko, espazio-guneen artean gehieneko konektibitate-lerroa baita. Horrez gain, askoren

onurarako konponbideak proposatuko dira: airearen kalitatea hobetzea, isolamendu termiko naturala, uraren kalitatea hobetzea, energia sortzea, euri-urak aprobetxatzea, ongizatea, etab.

Helburu bakarreko azpiegitura "gris" gehienek aldean, azpiegitura berdea funtzio askorako da, hortaz, agertoki guztien onurarako konponbideak susta ditzake: "kalte txikiak, onura handiak". Ildo horri jarraiki, interesdunen sorta zabalak eta, orokorrean, gizarteak izan ditzake abantailak.

Era berean, jarduerak ekonomia sortzen eragingo dute, poligonoko enpresa guztiak marka eta nortasun ekologikopean kokatuko baitira eta iraunkortasunaren aldeko konpromisoa agerian geldituko da.

C. EKINTZA ERALDATZAILE, BERRIZTATZAILE ETA EREDUGARRIAREN IZAERA

Proiektu honek berritzea ahalbidetuko du, arakatu gabeko eremuan murgiltzeaz gain. Hala, lurralde-karakterizazio handiko gertaera izan daiteke eta natur elementuak industria-espazioetan integratzen diren neurrian, iraunkortasunaren aldeko konpromiso berria har daiteke. Azpiegitura berdearen onurak, naturan oinarritutako konponbideak eta natur espazioak zaharberritu, kontserbatu hobetzeko ekintzak jasotzen dituzten agiri tekniko eta estrategiko asko izan arren, elementu horiek ez dira inoiz industria-poligonoetan aplikatu.

Lezo Eko-Parke Industrialak proiektuak aukera paregabea eskaintzen du kontzeptu hauek ohiko ikuspegitik kanpoko eremuan, baina garrantzitsuan, aplikatu eta emaitzak arakatzeko.

Gainera, poligonoak 3D mapetan izango dira ikusgai. Izan ere, horietan zona hauen eraldaketa naturala proiektatuko da etiketa batzuen bidez eta planteatzen diren natur edota energia konponbideak adieraziko dituzte. Irudikapen-mapak osagai berriztatzaileak dira eta beste txosten batzuek oinarri modura hartu ahal izango dituzte. Helburua proiektuaren transferigarritasuna bultzatzea da.

D. PROIEKTUAREN TRANSFERIGARRITASUN-MAILA

Gure lurraldea industrialakenez, "Lezo, Eko-Parke Industrialak" proiektuak eskualdean eta EAE guztian errepikatuzeko ahalmen nabarmena du. Industria-poligonoak euskal paisaiaren barnean sartzen dira. Industria-poligonoetan naturalizazio esku-hartzeak beharrezkoak dira gure industriaren jarduera ekonomikoak eta natur ondareak batera jarduten dutela eta kontserbatu nahiz errespetatzen direla bermatzeko. Proiektu honek eskualdearen eta EAEn trantsizio berderako prozesuan abiapuntua izateko aukera eskaintzen du eta, aldi berean, Euskadi erreferentzia izan daiteke beste europar ingurune batzuentzat, batetik, proiektuaren izaera berriztatzailea eta egituratzailea eta, bestetik, euskal gizartearen ingurumen-konpromisoa eta industria-zaletasuna kontuan hartuta.

6. PROIEKTUAREN EREMU TEMATIKOAK

Proiektuak industria-jarduera intentsiboa duten espazio fisikoak zaharberritu eta balioa handitzeko naturan oinarritutako konponbideak identifikatu eta aktibatzeari erreparatuko dio. Lezoko udalerriko hiru industria-poligonoak, proiektu honen xedeak, hiri-industriaren ingurunean kokatuak

daude eta ingurune hurbilenean natur espazioekin integratzeko eta harmonizatzeko aukera argiak eskaintzen dituzte. Halaber, proiektuak bere proposamenen artean energia sortu eta eraginkorra izateko konponbideak jaso nahi ditu.

Ikuspegi estrategiko horrek argi eta garbi honako helburuak lortzen laguntzen du:

1. Inguruneko ingurumen-parametro nagusiak (uraren kalitatea, airearen kalitatea) hobetzea, natur konponbideen eta azpiegitura berdearen multzoak hustubidearen efektua duen neurrian eta natur propietate arazleak dituen heinean.
2. Aldaketa klimatikoa arintzea eta horri egokitzea, natur konponbideei esker poligonoaren jardueraren ondorioz sortutako BEG gehiago xurgatuko baitira, isolamendu termiko naturalarekin, albedoarengatik hobe islatzearekin eta energia berriztagarrien sistemetara iragaitzarekin energia-kontsumoa murrizteaz gain.
3. Natur ondarea kontserbatu eta hobetzea, nagusiki, ekimen honen zaletasunaren ondorioz. Izan ere, bere nahia inguruko natur espazioen eta poligonoen arteko trantsizioa indartu eta hobetzea da. Horretarako, ingurunean dauden tokiko natur igarobideen konexio-aukerak aztertu eta sendotuko dira.
4. Ekonomia zirkularra eta baliabideen erabilera eraginkorra, bereziki, energiaren eta lurzorua nahiz ura erabiltzearen eremuan.
5. Zorua babestea; xede horrez, eraginkortasunez erabili (berrerabili) behar den errekurtsioa izatez gain, poligonoetan zorua naturalizazio-prozesuak egoera hobetzen lagunduko duela kontuan hartu behar da, zoladura iragazkorra erabiliko baita eta egun zigilatutako dauden lurzoruak irekiko baitira.